

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Laparra lehendakariordeak erakunde sozialei protagonismo handiagoa eskaini die gizarteratze-arloan

Hala proposatu die berriki bildu den Erakunde Sozialetako Plataformako ordezkariak

Jueves, 12 de noviembre de 2015

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra Erakunde Sozialen Plataformako ordezkariarekin bildu da azken egunotan, eta gizarteratzearen arretan elkarrekin lan egiteko protagonismo handiagoa eskaini die.

Zehazki, Laparra lehendakariordeak gizarteratzeko errenta jasotzen dutenekin jarduerak egitea proposatu die, pertsona horien bide-laguntzari eta gizarteratzeari nahiz lan-munduratzeari lehentasun handiagoa emanez; horretarako, Nafarroako Gobernuak ildo horretatik lan egiten duten erakundeetarako baliabide gehiago jarriko ditu.

Bileran, Nafarroako Gobernuko eta Erakunde Sozialetako Plataformako ordezkariak bat etorri dira lankidetzarako formula egonkorragoak ezarri behar direla esatean, horretarako urte anitzeko hitzarmenak lortuz; horrekin batera, diru-laguntzen deialdiak kudeatu eta justifikatzeko irizpideak argitzeko beharra dagoela esan dute, haiek sinplifikatuz eta beren gardentasuna erraztuz.

Laparra lehendakariordearen bulegoan egindako hitzorduan, honako hauek parte hartu dute: GGKEen Koordinakundeko Patricia Ruiz; Pobrezia Sareko Eduardo Jimenez; eta CERMINeko Mari Luz Sanz eta Carmen Burgui, bai eta Eskubide Sozialetako gabineteburu Txema Mauleonek ere.

2016rako lehentasunak

Bilkuran zehar, Laparra lehendakariordeak erakundeen eskaerak jaso ditu datozen Nafarroako Aurrekontu Orokorrei begira, eta zuzentzen duen Lehendakariordetzaren lehentasunak zein diren azaldu du datorren urterako, beren iradokizunak ezagutzeko asmoz.

Alde horretatik, lehendakariordeak aipatu du departamentuaren lehentasunak pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokari lotuta izango direla, horretarako, honako hau eginez: behar besteko



Bilkuraren une bat.

gutxieneko diru-sarrerak bermatuz; langabeen enplegua sortu eta bertan laneratzea, bereziki sektore kaltetuenei eta gizarteratzeko errenta jasotzen dutenei eraginez; babestutako etxebizitza alokatzearen aldeko apustua egitea etxebizitza-eskubidearen bermean aurrera egiten jarraitzeko, bai eta mendekotasun nahiz zailtasun sozialean dauden haur eta nerabeen arreta-programak hobetzea ere.

Bestalde, Erakunde Sozialen Plataformak Eskubide Sozialetako Lehendakariordetzaren aurrekontuan "funtsezko hobekuntza bat" aldarrikatu du, pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko, desgaituen arretako eta garapenerako lankidetzako esparruetan bereziki.

Gainera, erakunde sozialek egindako programetarako behar adina aurrekontu izateko ere eskatu dute, eta ez funts sozialen PFEZaren % 0,7tik datorren dirua bakarrik.